



Tolosako lan nagusienak

BISITA ▶ Gipuzkoako Ahalduen Nagusiak Zerkausiko, Apattaerrekako eta Usabalgo kiroldagiko lanak bisitatu zituen atzo

INBERTSIOAK ▶ Aurten 26,8 milioi euroko aurrekontutik 12,7 inbertsioetara bideratuko ditu Udalak ▶ 2-3



Usabal kiroldagia. Jokin Bildarratz alkatea lanak erakusten Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Ahalduen Nagusiari, Fernando Tapia Erakundeen Harremanetarako diputatuari eta teknikariari. I. ETXEBESTE



Apattaerreka. Datorren hiletik aurrera hasiko dira enpresak Tolosaldeko industrialde berrian kokatzen. I. ETXEBESTE



Zerkausia. Bi urtetan burutuko dira lanak eta 1.200.000 euroko aurrekontua izango dute. I. ETXEBESTE

R. ZABALA
SAGARDOTEGIA
Garagartza Bidea 2 • 20150 ADUNA - Gipuzkoa
Tel. 943 89 07 74 • www.rzabala.com

Urte osoan edan eta edan

ELECTRONICA TOLOSA
KONPONKETARAKO ZERBITZU TEKNIKOA
Telebista - bideoa - DVD - pantalla handiak
☎ 943 670 323
lurre, 4 behea 5 • TOLOSA

2005eko maiatzaren
19, 20, 21 eta 22a

laguntzaile: **hitza**

II. Garagardo Festa

Jaki tipikoak **18:00tatik aurrera zabalik**
20 garagardo mota
+ 5 KALIMOTXO mota aukeran

TOLOSA ▶ HIRIGINTZA

28,6 milioi euroko aurrekontutik 12,7 inbertsioetara bideratuko ditu Udalak

Gipuzkoako Ahaldu Nagusiak Zerkausiko, Apattaerrekako eta Usabalgo lanak bisitatu zituen atzo

IRATXE ETXEBESTE

«Bere fundazioaren 750. urteurrenean, bizitasun eta jarduera beteko une berezian murgilduta dabil Tolosa, herrian sustatutako inbertsio nagusiek eta ekimenek adierazten duten bezala. Hasi Usabal kiroldegi eta aisialdi gunetik eta Zerkausi emblematikoa zaharberritze lanetaraino; bi horiek eta Apattaerrekako industrialdea errealitate izango dira denbora gutxi barru, eta behar da esan proiektu horiek guztiak desio bakar batekin sortu direla: herritarren bizi-kalitatea hobetzea». Hitz horiekin azaldu zuen atzo Tolosako alkate Jokin Bildarratzek Udalak aurtengorako dituen 28 milioi euro baino gehiagoko kudeaketarekin, «bere historiako udal aurrekonturik handienarekin», etorkizunari aurre egin nahi diola.

Gipuzkoako Ahaldu Nagusi Joxe Joan Gonzalez de Txabarri eta Gizarte eta Erakundearen Harremanetarako diputatu Fernando Tapia gonbidatu zituzten udal ordezkariak herrira, biek ala biek eraikitzen ari diren eta hemendik gutxira eraikitzen hasiko diren eraikinak bertatik bertara ikus zituzten. Eta hala egin zuten: udaletxe ataritik irten eta Zerkausia eta Errota lehenik, Apattaerrekako industrialdea gero eta Usabal kirolgunea azkenik, bisitatu zituzten. Autobusean egin zuten kazetariek haiekin batera hara eta honako bidaia.

28,66 milioi euroko aurrekontua du aurtengorako Udalak, eta horietatik %44,5 inbertsioetara bideratuko ditu: hots, 12,7. Iaz baino %20 gehiago bideratuko ditu, beraz, inbertsioetara, eta horrek herria egoki hornitzeko aukera emango duela esan du Bildarratzek: «Usabal kiroldegi eta aisialdi gunea kirol arloan, Leidor zinemaren birmoldaketa kultur arloan, Alde Zaharraren eraldaketa Zerkausiaren eta Abastos merkatuaren erreformarekin eta Toriles eraikinaren zaharberritzearekin, eta Apattaerrekako industrialdearen proiektuak ekarriko duen egitura industrialaren dibertsifikazioa dira jarduerarik nabarmenetako batzuk. Adinek gizon-emakumeek eta gazteek arreta berezia merezi dute, halaber, inbertsioaren atal honetan, eta Mu-



Usabal kirolgunearen irekiera sinbolikoa egin zuten Gonzalez de Txabarri, Bildarratzek eta Tapiak. I.E.



Ezkerreko argazkian, Renedo, Gonzalez de Txabarri eta Imaz, Ezkiagaren azalpenak aditzen Apattaerrekako industrialdean; eskuinean, Bildarratzek Gipuzkoako Ahaldu Nagusiari Errotako lanak erakusten. I. ETXEBESTE

gikortasun Planak ere aurrera jarraituko du bidegorriak eginenez eta irisbideak ezari-ezarian, baina etengabe hobetuz».

Zerkausiaren inguruan

Zerkausiaren erreformak ekipamendu hori berreskuratu nahi du erabilera iraunkorerrako. Betidaniko merkatu erabilera kultur ekintzekin eta jaialdien ospakizunekin egingo du bat gune horretan, eta, erreformak Zerkausiaren bilakaera arkitektonikoa ezagutzeko aukera emateaz gain, Tolosako Erdi Aroko harrisia erakutsiko du zoruan argizaturik jarriko duten beira lerroaren bidez. «Eraikinerako sarbide-

ak ere hobetu egingo dira arrapalekin, eta Zumalakarregi pasealekukit egingo den pasabidearekin oztopo arkitektonikoak ezabatuko ditugu». Berebat, ontziratze leku bat eraikitzea aurreikusten du Udalak «Oria ibaian berriz ere estropadak egin ahal izateko».

Tolosako eskualdeko beste udalerririk batzuk —28tik 20 dira proiektu horrekin bat egiten dutenak—, Tolosaldea Garatzen garapen agentziak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak sustatzen duten Apattaerrekako industrialdeak, bestalde, 828 lanpostu izango dituela azpimarratu zuten Bildarratzek, eta industrialde osoaren %90 es-



garren industrialde bati ekiteko helburuarekin».

«Gipuzkoako osoenetakoa»

«Tolosak abangoardiako instalazio atletikoekin duen konpromisoa berretsiko du beste behin, 1923an, Berazubi estadioa inauguratu zuenean bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta udal elkarte publikoak Usabal kiroldegi eta aisialdi guneko inbertsioak gauzatzeko sinatutako lankidetzak hitzarmenari esker, foru erakundearen Inbertsio Plan Berezian sartu delako». Bildarratzek hitzetan, kirola praktikatzeko izango dituen areto eta gune ezberdinez gain, «kirol medikuntzarako zentro bat eta gizarte-eremu bat izango ditu, herriko klub ezberdinek erabiltzeko».

Eraikitako aldeak 25.000 m² hartuko ditu, eta bertako presazioei esker, «Gipuzkoako instalaziorik osoena eta handienetakoa izango da». Proiektuak bi fase hartzen ditu, eta biak ere aurtengorako jarriko dituzte abian. Lehen a fasea artifizialeko futbol zelai eta barruko eta kanpoko bi igerilekuak irekitzeari dagokio, eta bigarrena bi gimnastika gela, bi fitness areto eta areto futbol, saskibaloia eta eskubaloia praktikatzeko areto balioanizta irekitzeari. Gainerako instalazioak datoren urteko ekainerako izango dira prest.

Gipuzkoako Ahaldu Nagusiak arretaz jarraitu zituen gune horietako lanak, eta Gipuzkoak Europako hiri handien pare jarri behar badu, udalarekin eta Foru Aldundiarekin elkarlanean jardutea beharrezkoa dela esan zuen: «Orain 30 urte ametsetan ere ezinezkoa zen gisa honetako proiektuak egin zitezkeela pentsatzea, eta Gipuzkoako hiria-aren aldeko ahalgizko garrantzia berezia» dutela ere bazioen, eskualde ikuspegi batetik egindakoak izanik, herri-ritar askok horietan parte hartzeko aukera izango dutelako. Gauza bera adierazi zuen Fernandez Tapiak: «Luxua den instalazio bat izango duzue Tolosaldekoek, eta proiektu hori oso da baliagarria, errekurtsioak optimizatzen direlako hala».

ZENBAIT DATU ▶

«Tolosako Udalak 2005erako dituen 28 milioi euro baino gehiagoko kudeaketarekin ekin nahi dio aurre etorkizunari». Halaxe adierazi dute udal ordezkariak. Zerkausiko erreforma lanak eta Usabal kirolgunea egiteko aukera emango du diru horrek, besteak beste. Hemen bi gune horien eta Apattaerreka industrialdearen hainbat datu:



Apattaerreka industrialdea. I.E.

ZERKAUSIA

Aurrekontua. 1.200.000 euro orotara:

- ▶ 2005: 500.000 euro.
- ▶ 2006: 700.000 euro.

Epealdia. 2005-2007.



Zerkausiarri begira, atzo. I.E.

APATTAERREKA

Aurrekontua. 23 milioi euro, hirigintzan inbertitutakoak.

▶ Nabe industrialaren eraikuntza: 5 milioi euro.
Azalerak. Egitura industrial dibertsifikatzeaz gain, merkataritzara, ostalaritzara eta zerbitzuetarako 4.800 m² hartzen ditu, erabilera sozialeko beste 2.000 m²-ko ekipamenduetarekin batera.

▶ Hiriztatutako lurzoru: 175.000 m².

▶ Nabe industrialek: 100.000 m².

▶ Pabilioi industrialetan: 15.000 m²; 4.800 m² merkataritzarako eta 2.000 m² gizarte erabilerrarako.

Moduluak. 350 eta 800 m² arteko 33 eraikiko dira.

Enpresak. Tolosaldekoak dira gehienak, eta datorren hiletik aurrera hasiko dira horietako gehienak han kokatzen.

Lanpostuak. Orain arteko 684 lanpostu finkatzeaz gain, beste 144 berri sortuko dira datozen hiru urteetan. Guztira, 828 langile izango dira Apattaerreka industrialdean datozen hiru urtetan.

USABAL KIROLGUNEA

Aurrekontua. 23 milioi euro:

- ▶ 2005: 6.125.217 euro, orotara.
- ▶ 2006: 2.314.674 euro.

▶ 2007: 349.030 euro.

▶ 2005-2007: Guztira, 8.778.921 euro.

Inbertsioak. Udalak 2003. urtean hasitako ekipamendu honetara xedatutako inbertsio plana jarri zuen abian, eta 2006. urtean burutuko da.

Azalera. Eraikitako aldeak 25.000 m² hartuko ditu.

Epealdia. Ondo bidean, 2006. urtean amaituko da Usabal kiroldegiko eta aisialdi guneko estalitako eremua.

Instalazioak. Bi eremu nagusi ditu kirolgunea: estalitako gunea eta kanpokoak.

a) Estalitako gunea

▶ Entrenamenduetarako pista balioanitza (22x45m.).

▶ Konpetizioetarako pista balioanitza (27x45m.).

▶ Gimnastikako bi areto (330m² eta 90m²).

▶ Fitnesseko bi areto (133,5 m²).

▶ Padeleko kantxa.

▶ 10 kaleko barruko igerilekua.

▶ Igerian erakusteko barruko igerilekua.

▶ Hidromasaje gunea.

▶ Squasherako bi kantxa, frontoi txiki bat, rokodromoa (18m.) eta boulderra.

▶ Batzar eta erakusketa aretoa.

▶ Lau areto txiki edo bulego.

▶ Kirol medikuntzako gunea.

b) Kanpoko gunea

▶ Bi igerileku.

▶ Belar artifizialeko futbol zelaia, eta aldamenean entrenamenduetarako gunea.

▶ Patinatzeko pista.

▶ Frontoia.

▶ Saskibaloia eta tenis pistak.



Usabal kirolguneako lanak. I.E.

ZIZURKIL ▶ KIROLA

Alde ludikoa indartu nahi da VII. Biatloian

Bi maila nagusietakoek bikoteka egingo dute hilaren 22an Pedro Mari Otaño plazatik aterako den proban

IMANOL GARCIA

Ziotza kirol elkarteak eta Zizurkilgo Kirol Batzordeak 7. Bikotekako Biatloia antolatuko dute hilaren 22rako. Aurkezpenean Mikel Egibar Ziotza elkarteko kidea, Aitor Lopez Kirol eta Gazteria zinegotzia eta Ainhoa Larrea kultur teknikaria izan ziren. Irteera Pedro Mari Otaño plazatik egingo da, 10:00etan hasita.

Aurtengo berritasuna bi maila nagusienetan parte-hartzaileek bikoteka atera beharko dutela da. «Asmoa da eduki konpetitiboak jaitsi eta alde parte-hartzaileak igotzea. Alde ludikoa indartu nahi dugun», adierazi zuen Mikel Egibarrek. Horrela, ez da saririk izango irabazleentzat eta parte-hartzaile guztien artean kamiseta eta hamaiketako banaetako dira.

Antolatzaileek azpimarratu duten beste ezaugarri bat ibilbidea bera da. Zizurkilgo lurralde handi bat zeharkatuko dute eta horrekin herriko bazter ezberdinak ezagutarazi nahi dituzte. Ibilbidea base-



Egibar, Larrea eta Lopez, VII. Biatloian aurkezpenean. I. GARCIA

rrir ugariren ondotik igaroko da.

Lau maila ezberdin izango dira. 7 eta 9 urte bitartekoek elizari 2 itzuli korrika, 5 itzuli txirrin-daz eta 2 itzuli korrika egin beharko dituzte. 10 eta 12 urte bitartekoek 500 metro korrika, 2 kilometro txirrin-daz eta 500 metro korrika. 13 eta 15 urte bitartekoak, bikoteka, 2 kilometro korrika, 8 kilometro txirrin-daz eta 2 kilo-

metro korrika. Azkenik, 16 urtetik gorakoak, hauek ere bikoteka, 2 kilometro korrika, 10 kilometro txirrin-daz eta 4 kilometro korrika. Izen-emaiteak 943 693066 telefonoan egin beharko dira hilaren 20a baino lehen. Antolatzaileek gogoratu dute bilbideagatik mendi bizkleta erabili beharko dela eta kaskoa derrigorrezkoa izango dela parte-hartzaileentzat.

ANOETA ▶ GIZARTEA

Udalak erabilpenetik erretiratu behar dituen liburuak GKE bati eman dizkio

Hirugarren Adina Hirugarren Mundurako elkarteak bideratuko ditu

I. GARCIA

Anoetako Udalak eta Hirugarren Adina Hirugarren Mundurako gobernuz kanpoko erakundeak hitzarmen bat sinatu zuten atzo. Udalak erabilpenetik erretiratu behar zituen hainbat liburu eman dizkio erakundeari. Fidel Azpiroz alkateak bere poztasuna adierazi zuen «liburuak ez direlako botako eta erabilpen bat izaten jarraituko dutelako». Mertxe Alzaguren erakundekeko kideak eskerrak eman zizkion Udalarri.

Hiru esparruetara bideratuko dira liburuak. Euskaraz



Mertxe Alzaguren eta Fidel Azpiroz, hitzarmena sinatzerakoan. I.G.

daudenak, guztira 237, bi lekuetara: euskara batuaz eta gipuzkeraz daudenak Donostiako San Jose ikastetxera eta bizkaieraz daudenak Bego-

ñako Andra Mari ikastetxera. Gaztelazko liburuak, guztira 457, Guatemalako Fe y Alegria elkartera bideratuko dira.

EKONOMIA ▶

Loreka-k irabazi du Enpresak Sustatzeko Ideien 7. Lehiaketa

«Bezeroari bizitza pribatua eta lana bateratzeko erraztasunak ematea» du xede Loreka enpresa sortu berriak; Tecdoa-k eta Datinet-ek irabazi dituzte akzesitak

LEIRE MONTES

Loreka-k irabazi du Enpresak Sustatzeko Ideien 7. Lehiaketa. Beste zazpi proiektuekin lehiatu da Donostiako enpresa sortu berria. Ekimen guztietako kideek eta ekonomia eta garapen munduko ordezkariak erruz bete zuten, herenegun iluntzean, Aranburu Jauregia. Baita sari-emate ekitaldia aditari jarraitu ere, epaiaren zain. Alos Quartet-en doinuek girotu zuten aretoa; urduritasunak uxatzen ere saiatu ziren Xabier Zeberio tolosarra eta taldekideak.

«Tokiko garapen agentziek egindako lana ezagutaraztea eta ekintzaile berrien ideiak eta esfortzua saritzea» du helburu lehiaketak. Proiektuen orijinaltasuna eta berrikuntzak, inbertsioa, sortzen duten enplegua, eta gizartearekiko ardura —kalitatea, ingurumenarekiko errespetua...— hartzen du kontuan epaimahaiak. Hori guztiari «egokien erantzuten diolako» saritu dute Loreka enpresa, 6.000 euroekin. Beste bi akzesit ere banatu zituzten ekitaldian: hain zuzen ere, Tecdoa-k eta Datinet-ek jaso dituzte 4.500 euroko sariak.

«Gure beharrengatik»

«Bezeroari bizitza pribatua eta lana bateratzeko erraztasunak ematea» du xede Loreka enpresak. Besteak beste, erditzea prestatzeko edota umeentzako masaje ikastaroak eskaintzen dituzte, beti ere lan orduekin bateragarriak. Ludoteka zerbitzua ere badute, eta etxerako laguntza berritzaileak.

Esther Maroñok eta Esteban Basterretxeak «biziki pozik» jaso zuten saria Lorekarentzat. «Diruak suposatzen duen guztiaz gain, gure lan eta esfortzua saritzen du, eta oso ilu-



Tecdoa-ko, Datinet-eko eta Loreka-ko ordezkariak, sariekin, eskuinetik hasita, Esther Maroño eta Esteban Basterretxea irabazleak. L. MONTES

8 LEHIAKIDEAK ▶

Zortzi proiektu lehiatu dira Enpresak Sustatzeko Ideien 7. Lehiaketan. Haien orijinaltasuna eta berrikuntzak, egindako inbertsioa, sortzen duten enplegua, eta gizartearekiko ardura dira baloraziorako irizpideak. Hauexek dira proiektu guztien ezaugarriak:

Helocine.

- ▶ Unitate ibiltariak.
- ▶ Inbertsioa: 110.529 euro.
- ▶ Lanpostuak: 3 gizonetako.

Tecdoa.

- ▶ Segurtasuna eta erosotasuna eskaintzeko eta energia aurrezteko bitartekoak diseinua eta mantenua.
- ▶ Inbertsioa: 200.000 euro.
- ▶ Lanpostuak: 5 gizonetako.

Itsasjai.

- ▶ Itsas eta urpekaritza zerbitzuak, aisialdiaren eta turismoaren ikuspuntutik.
- ▶ Inbertsioa: 153.824,09 euro.
- ▶ Lanpostuak: gizonetako 1 eta emakumezko 1.

Atezabal.

- ▶ Mendaro, Villabona. Informatu. 943 43 41 27.

Sukaldeko laguntzaileak, garbitzaileak, sukaldariak, tabernariak. Sartzeak laster: ikastebeak, erresidentziak, Eusko Jaurlaritza. Informatu. 943 43 41 27

- ▶ Urduñako ondare historiko-kulturalean bisita gidatuak.
- ▶ Inbertsioa: 3.500 euro.
- ▶ Lanpostuak: 2 emakumezko.

ARM Robotics.

- ▶ Robotika erabiltzen duten enpresen beharrei erantzutea.
- ▶ Inbertsioa: 105.000 euro.
- ▶ Lanpostuak: 4 langile.

Axios Engineering S.L.

- ▶ Software ingeniarietako aholku-enpresa.
- ▶ Inbertsioa: 9.096,65 euro.
- ▶ Lanpostuak: 2 gizonetako eta 2 emakumezko.

Loreka.

- ▶ Bezeroei bizitza pribatua eta lana bateratzeko ahalbidetzeko zerbitzuak.
- ▶ Inbertsioa: 43.000 euro.
- ▶ Lanpostuak: gizonetako 1 eta 3 emakumezko.

Datinet.

- ▶ Itsas eta urpekaritza zerbitzuak, aisialdiaren eta turismoaren ikuspuntutik.
- ▶ Inbertsioa: 153.824,09 euro.
- ▶ Lanpostuak: gizonetako 1 eta emakumezko 1.

sionaturik gaude», adierazi zioten HITZARI.

2003an sortu zen ideia, eta 2004ko apirilean jarri zuten guztia martxan. «Guk geuk genituen beharrengatik hasi ginen honetan pentsatzen. Seme-alabak jaio ziren, zaila egiten zitzaigun guztia bateratzeko... Hutsune bat zegoela iruditu zitzaigun, eta eskari horri erantzuna ematen saiatzeko hasi ginen lanean». Kontent daude, «jende askok» behar baitu haien zerbitzua.

Proiektu berriak badituzte, gainera. Irailean, esaterako, haur eskola zabalduko dute. «Horrela, 0-3 urteko bitarteko haurrentzat ere izango dugu zerbitzurik», diote, kontent.

Sustatzaile berriak lagundu

Garapenek eta Tolosaldea Garatzenek antolatuta dute aurten lehiaketa, «2004an sortutako mikroenpresak saritzea». EA-Eko garapen agentzien elkarrekin da Garapen. 1992an sortu zen, eta tokiko 23 agentzia batzen ditu: Gipuzkoako 9, Bizkaiko 12, eta Arabako 2. «Etengabeko aholkularitza zerbitzua» eskaintzen die. Javier Rodriguez lehendakariaren esanetan, «enpresa txikiak dira, gaur egun, lanpostuak sortzen dituztenak. Eta haiei aholkularitza eta laguntza eskaintzeko egin behar dugu lan».

Tolosaldea Garatzen eskualdeko garapen agentzia 1994. urtetik ari da martxan. «Enplegua sortzea» du helburuetako bat, eta horretarako «sustatzaile berriei laguntzeko zerbitzua» sortu zuen. Jokin Bildarratz Tolosako alkate eta Tolosaldea Garatzeneko lehendakariak emandako datuen arabera, «eskualdean 28 enpresa txiki sortu ziren iaz, zuzeneko 50 lanpostu sortu, eta ia miloi bat euroko inbertsioak egin».

ERLIJIOA ▶

Mentekoste gau beila, gaur, Santa Maria parrokian

Pentekoste jai nagusia prestatzeko otoitzaldi berezia egingo dute gaur, 21:00etan, Santa Marian. Era berean, 20:00etako mezarik ez dela izango jakinarazi dute.

BERDINTASUNA ▶

Emakumeen Mundu Martxaren harira, ekitaldiak

Martxoaren 8an hasi zen, Brasilen, Emakumeen Mundu Martxa, eta Burkina Fason amaituko da, urriaren 17an. Euskal Herritik, hilaren 24tik 27ra pasatuko da. Horren harira, Tolosaldeko Bilgune Feministak hainbat ekitaldi antolatu ditu gaur. Goizean, informazio mahaia jarriko dute Trianguloan; 18:30ean, trikopotea izango da, Triangulotik hasita; ondoren, afari-merienda Trianguloan, trikilariek eta abeslariak giroturik —afaltzekoa bakoitzak eraman behar du; postrea eta edaria Bilgunearen kontu—.

GERTAKARIAK ▶

Gazte bat hilik aurkitu dute Zumardi Handian

Atzo, goizeko hamaikak aldera, 15 urteko gazte tolosar bat aurkitu zuten hilik Zumardi Handian. Udaltzaingokak HITZARI adierazi dionez, auzitegiak medikuaren araberako ordu batzuk zeramatzan hilda.

OLINPIADAK ▶

Gaur ekitaldiak, bertan behera gelditu dira

Eskolarteko 33. Olinpiada hastekoak zen gaur Berazubino, baina ekitaldiak bertan behera gelditu dira atzoko heriotzagatik.

iragarki laburrak ▶

Kutxak eta banketxeak. Lekuak libre. Sartzeak laster. Informatu. 943 43 41 27.
Peoiak, igeltseroak, soldadoreak, mantenenmendukoak. Sartzeak laster. Hernani, Arrasate, Arama, Errenteria, Antzuola, Zerain,

Mendaro, Villabona. Informatu. 943 43 41 27.
Sukaldeko laguntzaileak, garbitzaileak, sukaldariak, tabernariak. Sartzeak laster: ikastebeak, erresidentziak, Eusko Jaurlaritza. Informatu. 943 43 41 27

Administrari laguntzaileak. Sartzeak laster. Hernani, Usurbil, Beasain, Altzo, Bergara, Sorraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Anoeta. Informatu. 943 43 41 27
Gidariak. Sartzeak laster: udalebeak, Eusko Jaurlaritza, Foru

Aldundia. Informatu 943 43 41 27 telefonoan.
Harreragileak, telefonistak. Erakunde publikoentzat hurrengo deialdiak. Informazioa doan. 943 43 41 27
Administrari laguntzaileak.

Liburutegiak, informatika. Erakunde publikoentzat hurrengo deialdiak. Informazioa doan. 943 43 41 27.
Udaltzaingar. 25 plaza libre udaletxeetan: Eibar, Mutriku, Ordizia, Beasain, Hernani, Irun, Arrasate. Informazioa doan. 943 43 41 27.

GUTUN@K ▶



izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Herriko jaien antolaketa dela eta

Festak inguratzen ari direla eta, Orendaingo Udalak dei bat zabaldu digu herritarrei, denon gustukoak izan litezkeen festak antolatzeko asmoarekin.

Honen aurretik Tomas Plazaola etortzen zaigu guregana festak antolatzeko denontzat lekua dagoela esanez.

Noski lekua denontzat bada goela! Baina ez festak antolatzeko bakarrik.

Zorionez, Orendainen udalaxe ederra daukagu, denok kabitu gintezke, lekua ez da arazoa, borondatea baizik.

Bost zinegotzientzat lekua badago, ez hirurentzat bakarrik. Hilabete asko dira gure lana egiteko, udal talde bezala, lekua eskatu genuela; eta beraien erantzuna sarraila aldatu eta giltza ukatzea izan zen.

Beste alde batetik, berriz, laster beteko dira bi urte, Orendaingo herritarrek eman zituzten bozkei entzungor eginez,

Udala beraien esku hartu zutela.

Beraz, festak antolatzeko baino aurreko lanak badauzkagula pentsatzen dugu.

Eta bukatzeko, azken aldian denon ahotan dabilen esaldia errespetatuz: herriaren hitza eta erabakia errespetatu!

BENARDINO OTAMENDI
(ORENDAIN ABIAN) ▶ ORENDAIN

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

- Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- Anoetaledea.** Medikua: 65 23 39
- Asteasu.** Medikua: 69 24 23
- Berastegi.** 68 33 61
- Bidegoian.** Medikua: 68 11 34
- Ibarralde.** Osasun etx.: 672411
- Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29
- Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20
- Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- Lizartza.** Medikua: 68 20 77
- Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 00 68 00
 - ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 - ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 - ▶ DYA: 67 25 36
 - ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
- Villabona-aiztondo.** Anbulat.: 00 69 70
- Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

- ▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
- ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
- ▶ Taxia: 67 04 20
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIAK

- ▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
- ▶ Arramele-AEK: 67 12 14
- ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Gaur.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia 7 (Tolosa). 943 67 06 48
- Plaza, M. Elbarren, 36 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

- Publizitatea.** 661 67 88 18.
tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info
- Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
tolosa@tolosaldeko hitza.info
- Villabona-Aizt.** 687 41 00 22.
villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info
- Anoetaledea.** 687 41 00 22
anoetaledea@tolosaldeko hitza.info
- Ibarralde.** 687 41 00 32.
ibarralde@tolosaldeko hitza.info
- Alegialdea.** 687 41 00 34.
alegialdea@tolosaldeko hitza.info
- Leitzalde.** 687 41 01 18.
leitzalde@tolosaldeko hitza.info

SAN ISIDRO EGUNA ▶

Baserritarren eguneko ospakizunak eskualdean

Mezak eta bazkariak izango dira nagusi San Isidro eguneko ekitaldietan



Idi proban Olarreagaiokoa eta Barriola aritu ziren iaz idiekin Asteasuko plazan. G. AZKUE

ERREDAKZIOA

Eskualdeko herri askotan ospatuko dute biharkoan San Isidro Eguna, baserritarren ome-nezko eguna, hain zuzen; eta honen harira, hamaika ekitaldi antolatu dituzte.

Baserritarren eguna bihar bada ere, eskualdeko herri batzuk gaur emango diote hasiera festa giroari. Horrela, Tolosan eta Altzon ekitaldi ezberdinak izango dira gaur. Leheanean Izaskungo Andra Mari kooperatibak antolatu ditu ospakizunak, Santa Maria elizako mezak eta prozesioak osatuko dutelarik eguneko agenda. Altzotarrek, aldiz, gauera arte itxarongo dute meza entzuteko, 21:00etan hain zuzen. Ondoren afari legea egiteko bilduko dira herritarrek Arandia Jatetxean.

Gainontzeko herriek bihar burutuko dituzte euren ekitaldiak. Guztietan nagusi mezak eta bazkariak izango dira. Zizurkilen, gainera, idi probak eta trikitilariak alaituko dute jaia. Baserritarrek izango dute, beraz, beraien egun handia ospatzeko parada. Isidro izeneko gizonetako guztiak ahaztu gabe. Bada, zorionak dano!

SAN ISIDRO EGUNA ▶ EGITARUA

Baserritarren egunaren aitzakipean ekitaldi ugari antolatu dituzte.

GAUR

- Altzo.** 21:00etan meza nagusia egingo dute. 21:30ean, berriz, afaria Arandia jatetxean.
- Tolosa.** Izaskungo Andra Mari kooperatibak antolatuta 11:30ean prozesioa aterako da Santa Maria parrokiatik eta 12:00etan meza izango da bertan.

BIHAR

- Abaltzisketa.** 10:00etan herri meza izango da. 14:00etan bazkaria Estankon.
- Asteasu.** 11:15ean meza. 13:00etan, erakustaldia probalekuan. Bi idi pare, Mugarri 2000 kiloko harriarekin. Bertan Jose Barriola eta Olarreagaiokoa

ariko dira. 14:00etan bertso bazkaria Sarasola sagardotegian.

Belauntza. 13:00etan bazkaria Bentan, meza ondoren.

Berastegi. San Isidro irudia udalxetik San Martin parrokiara eramango da prozesioan 11:45ean. 12:00etan meza nagusia eta 14:00etan bazkaria Gaztainondo jubilatuen elkartearen

Elduain. 11:00etan hamaiketako Kontzejtu tabernan.

Gaztelu. Hamaiketako Kontzejtu tabernan 11:00etan. **Ibarra.** 10:30ean meza izango da, ondoren prozesioan aterako direlarik. Eliz atarian soroen, abereen, eta familia taldeen bedekapena egingo da. Amaitezen, hamaiketako izango da, eta ondoren, nekazarien elkarte bazkaria. **Orendain.** Elizan meza

nagusia izango da 11:15ean.

14:00etan berriz, herriko ostatuan bazkaria **Zizurkil.** 11:00etan meza nagusia San Millan elizan. 12:00etan idi probak, Burrusti baserrikoak eta Markinako Txominen idi para udalxetik aurrean. 14:00etan bazkaria Etxeberria jatetxean, bertsolari eta trikitilariekin.

TOLOSOKO UDALA

IRAGARKIA

2005eko maiatzaren 3an Gobernu Batzarrek hartutako akordio bidez onartu zen Klausula Administratiboen plegua, Leidor Zinema Birmoldatzeko obran 1. fasea egiteko obrak

- 1.- Helburua: Leidor Zinema Birmoldatzeko obran 1. fasea
- 2.- Lizitazioaren zenbatekoa: 103.193,01 (BEZa barne)
- 3.- Lanak egiteko epea: Hilabete (1)
Eraispena hasteko: 2005-07-11
Eraispena bukatzeko: 2005-08-11
- 4.- Espedientea ikusteko:
Copitec (Samaniego kalea 1, behe), telefonoa: 943 65 40 28
Kopibat (Poeta Lizardi Plaza 2), telefonoa: 943 65 51 66
- 5.- Behin-behineko fidantza: 2.063,86 €
- 6.- Behin betiko fidantza: 4.127,72 €
- 7.- Enpresa-saikapena: Taldea C Kategoría. a
- 8.- Eskaintza egiteko epea eta tokia: Tolosako Udaltzeko Sarrera Erregistroan, Plaza Zaharra 6B 2005eko ekaina 7a eguerdiko orduabata (13:00) arte.

Tolosa, 2005eko maiatzaren 12a - ALKATEA

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Abantzea. Behin erabiltako furgonetarako abantzea salgai. Interesatuak 653 729 246 zenbakira deitu

Etxea. Beasainen etxea salgai. Deitu 619 601 111 zenbakira.

GALDUTAKOAK

Erloju. Emakumeen erloju bat galdu da Araba etorbidean. Aurkitu duenak 943 65 22 83 zenbakira dei dezala.

IRURA ▶

Bi erakusketa
izango dira
Kultur Astean

Irurako Kultur Astean bi erakusketa izango dira ikusgai. alde batetik hilaren 21a bitartean, egur taila eta pintura ikastaroen ikasleek eta jubilatuek egindako lanak izango dira ikusgai liburutegiko beheko aretoan, 17:00etatik 19:00etara. Hilaren 16tik 21era, berriz, argazki lehiaketan ateratako argazkiak ikusi ahal dira Ikastolaren aretoan. Bestalde, kultur ekitaldi ugari izango dira gaur. 11:00etan hasita, xake txapelketa egingo da plazan. 16:30ean, Aizpurua jatetxean, taberna eta elkarten arteko XII. mus txapelketaren finalerdiak eta finala. 17:00etan, Etkezarreta kalean eta Loatzo plazan, gaurrentzako lasterketak eta jokoak. 18:30ean, antzerki emanaldia Loatzo plazan.

VILLABONA ▶

Ekitaldi ugari
gaur eta etzi
Gaztetxean

Onddo Gaztetxearen urterrena dela-eta ekitaldi ugari egingo dira gaur eta etzi. Gaur goizean mendi ibilaldi antropologikoa egingo dute. 16:30ean, BMX bizikleta eta skate erakustaldia. 19:00etan, DJ Zigor eta Aritz Sound System-ek hitzaldia. 22:00etan, Ibarrako Alurr dantza taldearen emanaldia Gurea antzokian. Dantza emanaldiaren ondoren, Gaztetxean, DJ Zigor eta Aritz Sound System-en emanaldia. Bihar, 17:00etan, malabareak eta afari-merienda Otsabin.

ESKERTZA ▶

PEDRO ALTUNA ARMENDARIZ jaun hil berriaren senideen partetik, eskerrak samin agurra bidali zenuten eta hileta elizkizunetara etorri zineten guztioi. Bihar 11:00etan haren aldeko meza izango da Lizartzako Santa Katalina eltzan.

Lizartza, 2005eko maiatzaren 14a

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserría - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

IBARRA ▶ KIROLA

Garaipena lortu behar du gaur Ibarrak

Azken partida izango du gaur Belabietan 18:30ean Burlataren aurka

IÑIGO TERRADILLOS

Gaur jokatuko du Ibarra areto futbol taldeak denboraldiko azken partida, izan ere, datorren astean bukatuko da liga, baina Ibarrak atsedena izango du. Burlataren aurka gaur 18:30ean Ibarrako Belabietan kiroldegian jokatu duen partida izango da, beraz, etxeko taldearentzat mailari eusteko geratzen zaion azken

aukera. Carnicerías Saenz, Burlata eta Ibarra dira uneotan maila mantentzeko borrokan ari direnak. Hiru hauetatik Ibarra dago egoera zailenean, puntu gutxien baititu. Ibartarrei geratzen zaion aukera bakarra gaurko partida irabaztean etorriko litzateke. Horrela gertatzen bada eta datorren asteko jardunaldian Burlata ligan hirugarren postuan duden Atenea gasteiztarren aur-

ka galduko balu maila mantentzea lortuko luke. Puntuetan berdinduko lukete bi taldeek, baina kasu horretan bien arteko gol aldea kontuan hartuko litzateke eta Ibarra kokatuko zen Burlataren gainetik. Hala ere, ezin uka daiteke Ibarrak oso zaila duela maila mantentzea.

Azken partidetan bezala, inoiz baino gehiago behar dute orain zaleen babesa.

IBARRA ▶ IZASKUNGO JAIAK

Izaskun auzoko jaiak
hasiko dira gaur

Astelehena bitarte askotariko ekitaldiak izango dira; berrikuntzen artean herri kirolak, sokatira, asto lasterketa...

IÑIGO TERRADILLOS

Gaur hasiko dira Izaskun auzoko jaiak, eta datorren astelehena bitarte askotariko ekitaldiak antolatuta dituzte. Beste urteetako egitarauarekin alderatuz, gainera, aurtengoan berrikuntza asko izango dira.

Sokatiran nor baino nor ariko dira Izaskungo taldea, Belauntzako, Hauspoa elkarte, eta Urrietatik eta Astigarragatik etorritakoak. Biharko herri kirolak ere berrikuntza dira; auzoko gazteak txingan, aizkora, segan... ariko dira. Hala, gaur iluntzeko asto lasterketa lehen aldiz egingo dute.

Herri bazkariak, trikitilariak, bertsolariak, pailazoak, dantza ikuskizunak osatuko dute Izaskungo jaietako egitaraua.



Pasa den urtean bezala Alurr dantza taldea ariko da Izaskunen. i.e.

EGITARAUA ▶ IZASKUNGO JAIAK

GAUR

18:00. Sokatira (Izaskundarrak, Hauspoa, Belauntza...)
19:00. Erromeria.
21:00. Herri afaria.

BIHAR

12:00. Herri kirolak auzotarren eskutik (txingak, aizkora, sega, koxkola...)
14:30. Herri bazkaria Peñagarikano eta Irazu bertsolariekin batera.
18:00. Trikitilariak: Etxabe Anaiak.
19:00. Asto lasterketa
20:00. Trikitilariak.

ETZI

10:00. Trikitilarien eskutik diana.
11:00. Meza
12:00. Hamaitetako herrikoia.
13:00. Bertso saioa: Peñagarikano eta Lizaso
16:30. Potxin eta Patxin pailazoak.
17:30. Alurr dantza taldearen emanaldia.
18:30. Bertso saioa: Peñagarikano eta Lizaso
19:00. Haurrentzat merienda.
19:00-20:30. Erromeria erri kirolak auzotarren eskutik (txingak, aizkora, sega, koxkola...).

GUTUN@K ▶

Belauntzar bati
atxikimendua
eskainiz

Pasa den asteburuan Almoneda eta Altzari Zaharren XI. Azoka egin zen Tolosan. Hainbat eta hainbat postu jarri ziren eta makina bat ikusleez gain, salerosketa ugari ere burutu ziren bertan.

Urte askoan bere dendaren izena zuen txoko bat hala ere hutsik egon zen. Mari Karmen Olanoren herriararen txokoa, alegia. Izan ere, orain juxtu urtebete beren burua beste inorena baino azkarra eta ausartagozat zuten batzuek su eman zioten bere dendari, suarekin batera urteetako esfortzua, lanak, izerdia, pozak eta ametsak erreaz.

Kalteak zenbaezinak izan ziren; samina berriz zenbaitza. Oraindik ere gertakizun tamalgarririk haren ondorioak ari dira jasaten Mari Karmen eta bere sendia.

Idatzi honen bitartez, Erroizpe taldeak gertakizun hau ahantzi ez duela eta behar den hainbestean gogora ekarriko duela adierazi nahi du, ahal duen neurrian behintzat ekintza hauen argitze lanetan lagunduko duela iritzi beti. Gure laguntasun osoa eskainiaz, animo eta aurrera!

EDURNE ARBELEGI (ERROIZPE TALDEA/EAJ-EA) ▶ BELAUNTZA

GAZTELU ▶

Apartamentu
babestuak
egiten hasiko
dira laster

I.TERRADILLOS

Zehaztuta dago Seroretxen egingo dituzten berrikuntzak zein enpresak egingo dituen, beraz orain hilabete bateko epea dute lanari ekiteko, eta lau hilabeteren buruan amaituta egotea espero dute.

Hain zuzen ere, landa gizarite gune balioanizta egokitu nahi da bertan. Eraikineren beheto solairuan herriko pertsona helduak elkartu eta jarduera sozialak egiteko gun bezala erabiliko den gizarite zentroa egingo da. Bigarren pisuan, berriz, helduei bizilekua eta arreta eskainiko zaion apartamentu babestuak egingo dira.

LEITZA ▶ MAITZAREN 22KO HERRI KONTSULTA

Talde sustatzailea: 'Datu objetiboekin, guk ezetza diogu'

Herri kontsultaren informazio kanpaina hasita dago; talde sustatzaileak lehen hitzaldian bere jarrera azaldu du

JAIONE ASTIBIA

Maiatzaren 22an, «Leitzan harrobirik bai ala ez?» galderarekin eginen den herri kontsultako informazio kanpaina bere bidean doa.

Oraingoz, kanpaina guztian zehar egin izan den jendaurreko ekitaldi bakarra, ordea, ostegun iluntzean egin zuen Herri Kontsultaren Aldeko Talde Sustatzaileak eta bere jarrera han plazaratu zuen, «beti ere, eskuarteaz dauzkagun datu objetibo eta zehatzei erreparatu, oinarritutakoa», han bildu ziren entzuleen aurrean baieztatu eta bereziki nabarmendu nahi izan zuten.

Leitzan, harrobien gaiak izan duen bilakaera azaldu zuten hasteko eta ondoren beren argudioak azaldu zituzten. Horrela, «harrobiak dauden herrietara joanda eta harrobietan bertan, ikusi eta galdetuta, lortutako informazioa», izan omen dute oinarri, erabakia hartzerako: «Herria goitiki behera aldatuko litzateke: bertako bizikaltatea erabat okertuko litzateke herrian harrobia edo harrobiak egiten badira», adierazi zuten, Leitzaldeko lur eremuan irekitzeko aukerak izan litezkeen harrobi posibleen erreferentzia eginez, «oraingoz ikerketa fasean, edo galdera



Entzule franko hurbildu zen hitzaldia entzutera, Aurrerara. JAIONE ASTIBIA

eginda soilik» omen dauden aukerak, aditzera eman zuten. Aitatu zuten ere «gelditzen diren industrializatu eta urbanizatu gabeko eremuen desagerpena» ekarriko zuketela, horrelako «ustiaketa bortitzen ezarpenak», inguru hauetako ezaugarri den «ingurune baliotsuaren kaltetan». Leitzarako nahi luketen garapen iraunkorarekin «bat ez datozelako», «harrobiei 'ez' esaten diegu», adierazi zuten, sendo.

Beren argudio horien frogagisa, 1992an Convial enpresak udaletxean aurkeztu zuen Albiñorako proiektutik ateratako datuak jarri zituzten mahai gainean: gaia, 2003an, enpresa horrek berriz ere udalari proiektu hartaz beraz galdera egin zionean berbizitu zelarik,

huraxe izan omen dute datuak ateratzeko baliatu dutena.

Eta ondorioak atera ere, atera zituzten, materialaren garraioari zegoikonez adibidez: «hitzez diotenez, eguneko 10 kamioi igaroko omen lirake herrietik, baina proiektuan oinarrituta, zatiketa simple batzuk eginez, bestelako datuak ateratzen dira», zioten. Hantxe bertan adierazi zituzten datuok.

Aipatzekoa da, jendartean Convialeko bertako hiru buru ere han zirela, eta Talde Sustatzaileak hitza hartzeraz gonbidatu zituela, «esatekorik edo zuzentzekorik» izatekotan, eta ez zutela han emandako datu bat ere gezurtatu. Proiektua «ontzat» eman zuten, eta «60 familientzat lana» sortu eta

EREDUA ▶ ALBIÑOKO PROIEKTUA

EZAUGARRI OROKORRAK

Bulkatzailea. Convial.
Aurkeztutako urtea. 1992.
Harria. Ofita.
Azalera. 72.000 m²: %26 besterena; %74 komunala.
Bolumena. 1.200.000 m³.
Epea. 15 urte, luzagarriak.
Modua. Leherketa bidezkoa: 1.881 Kg lehergai/leherketa.
Lanpostuak. 3-4.
Kanona. 1,8 milioi pta/urte (10.818,22 euro/urte).
Inbertsioa. 2,10 milioi euro (350 milioi pta.).

DATU INTERESGARRIAK

Dentsitatea. 1 m³ ofita = 2tik 2,5ra Tonako pisua.
Kamioien edukiera: 16 edo 25 Tona.

beraiek egindako «balorazioen arabera», urteko 10 milioi pta. emateko prest azaldu ziren, hori «inon idatzita ez dagoen arren», beraiek ziurtatu zuten bezala.

Hizlariak, bestalde, biologo baten laguntza ere izan zuten. Honek, hain justu aitaturako proiektu horrentzat egindako Ingurumen Eraginaren Ikerketa aztertu du eta bere ondorioak agertu zituen. Beretzat proiektua kokatzen den inguruan dagoen errekek zuen balioko ekologikorik handiena, «iturburua delako» eta bereziki babestutako espezieak bertan bizi direlako, ur-satorra, bisoi europarra eta *Soldanella villosa* primulazea aitatu zituelarik bereziki, eta «horiek ez daude inon ere aipatuta», zehaztu zuen. Eguneko arauak ez lituzkeela beteko baieztu zuenlarik bestalde, «ikerketa hau zaharkituta dago», esanez.

PILOTA ▶

Bihar Getxoko txapelketako finalean ariko da Olazabal

Herriartekoan, berriz, Donezteben jokatu dute Errekaren aurka, Aurrerako pilotariak

J. ASTIBIA

Bihar jokatu da Getxoko pilota txapelketako finala, Getxo auzoko pilotalekuan bertan, eta hantxe izanen da Mikel Olazabal aresoarra, atzeko koadroetan Gartzia III.a bizkaitarra lagun duela, txapelketa ona egin eta azken partidurako txartela lortu ondoren.

11:00etan hasiko den jaialdiko partidua nagusian, finalean jokatu duen beste bikotea, berriz, Aspe eta Uriartek osatutako izanen da, bat gipuzkoarra eta bizkaitarra, bestea. Eginahalak eginda, beste txapelketa baten jabe egiteko aukerak baditu aresoarrek, eskuetatik ere ongi omen dabil eta «aitzakiarik ez dago», zioen atzokoan bere prestatzaileak, «gaur —atzo— iluntzean Elgetara pilotara joan beharrak gara eta iganderako ere ongi egotea espero dugu», baieztatu zuten.

Doneztebera

Herriarteko txapelketari dagokionez, pilota eskolatik igorritako informazioaren arabera, igandean, Donezteben aritzea egokitu zaie Aurrerakoei, Errekaren aurka zehazki, 10:00etan hasita.

hitza

txokoa^{lagunen}

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

ILUMINAZIOA
honetik

TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanikak

San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROAK

Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR

Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko maiatzaren 14a, ostirala ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzola, Adina, Abatur, Alegia, Alkiza, Alzo, Arnedeta, Aroca, Anso, Balamán, Ebalaneta, Berastegi, Berrozi, Etxuan, Herrialde, Ibañe, Yaya, Ibañe, Leizola, Lantzeta, Obendin, Oliva, Tolosa, Vilatorrada, Zuzuri Besterik; Leizaldeko Euzkara Batardura

Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurjaritza Kultura Saila



GAURKO EGURALDIA



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Koordinazio bilera udaldekuan 10:00etan.
Alkiza. Antonio Zubiaurre alkate zenaren omenez, *Alkizako argazki zaharrak* proiektzia 18:00etan Kultur Etxean eta *Ezetz lepoa jarri* antzerkia 22:00etan pilotalekuan.

Tolosa. Laburrada 2005 barruan, Idoia Sanchezen ipuin kontaketa haurrentzat 18:00etan Amarozk auzoetxean.

Tolosa. Mendekostea prestatzeko otoitzaldi berezia 21:00etan Santa Maria parrokiari.

Zizurkil. Maiatza Saltsan kultur egitaraua eta Ziotza elkartearen 2. urteurrena dela-eta, Euskal Herriko erdigune topografikora, Beriain mendilerorra irteera.

MUSIKA

Anoeta. Arri eta errepedean hildako motozale guztien omenez, Rouge eta Mutuo Desprezio taldeak Cheyenne Radikal Bykes&Saloon-en. Aurretik, 16:00etan, moto irteera eta ondoren afaria. Izen-ematea: Cheyennedeko 600 01 52 01.

Irura. Mission 439 diskotekan, 1. salan Dj Nono (Frantzia), Dj Guim's (Frantzia), Dj Julius eta Dj Rober jazz izango dira eta 2. salan Karol Berkley. Zabalik 23:30etik 06:30era.

Tolosa. Torazinas (Reus) eta Forales taldeen emanaldia Bonberenean 22:30ean.

TOLOSA KUP

Tolosa. Santa Luziako Uzturpe kiroldegian. Biharko partidua: Sinsalus-Harri Potte (14:00), Club Kung Fu-Gokugol (14:35), The Trankixx-Amets jatekoa (15:10), Pupo-Cirsas (15:45), Txoko Txiki-Irazki (16:20), Tolosa Maroc-Vespa Boys (16:55), Basajaunak-Itaie (17:30), Drink in team-Eguzki (18:05), Fujimori-Lekukik (18:40), Ekaitz-Aqui hay tomate (19:15). Kontrola: Gokugol, Tolosa Maroc, Fujimori, Itaie.

ZINEMA

Tolosa. *El hundimientto.* Leidor zinemari 19:30ean eta 22:30ean.

Txakurrekin elkarbizitza

TOLOSA ▶ Udaltzaingoak txakurrei buruzko udal ordenantzat aplikatzen eta isunak jartzen hasiko da: zaindu, lotuta paseatu, osasuna, kakak jaso...



Zabalarreta parkean txakurrentzat prestatutako leku berezia. J.SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

Udaltzaingoak txakurrei buruzko udal ordenantza betearaziko du eta isunak jartzen hasiko da datorren astetik aurrera, «azkenaldian ez dela errespetatzen ikusita». Joselu Andueza zinegotziak adierazi duenez, Hiru atal nagusietan banatzen da ordenantza: animalien zainketa, heziketa eta osasun kontrola.

Udalak txakurren jabeek

deialdi berezia egiten die ardurara, betebeharrak eta errespetua eskatuz «elkarbizitza egokia» lortzeko. Kalean eta leku publikoetan txakurrak lotuta eraman behar dira. Derrigorrezkoa da bere kakak jasotzea, jabeak arduratu behar direlako txakurrek espaloaiak, errepideak, lorategiak eta beste berdeguneak zikin ez ditzaten. Animaliek erroldatuta egon behar dute —laster hasiko da Udala errolda egiten—

eta mikrotxip batekin identifikatuta, eta osasun txartela eguneratuta eduki behar dute. Tarteka parasitoak kendu behar zaizkio txakurrari, kanpotik eta barrutik, gaixotasunak eta kutsatzeak ekiditeko. Bere tresnak eta lotokia egunero garbitu behar dira, elikadura orekatua eta urtero txertoa eman behar zaio.

Martxan jarri zen sentsibilizazio kanpainak emaitza onak izan arren, bide horretatik la-

nean jarraitu behar dela uste du Udalak. Udaltzaingoa isunak jartzen hasiko da datorren astean, 30 eta 300 euro arteko arau-hauste arinetan —ez erroldatzea, zainketa egokia ezin den tokietan edukitzea, bere kakak ez jasotzea leku publikoetan— eta 15.000 eurotik gorakoak larriak direnean —kalteak sor ditzaketen animaliak behar bezala ez edukitzea, txakurra lotuta ez eramatea leku publikoetan—.

Animalia arriskutsuak

Arriskutsuak izan daitezkeen txakurren zerrenda ere kalera du Udalak: Pit bull terrier, Staffordshire, Bull terrier, American Staffordshire, Rottweiler, Dogo argentino, Fila basileiro, Tosa inu, Akita inu eta horiekin gurutzatu ondorengoak. Hauen jabeek lizentzia administratibo eta arriskutsuak izan daitezkeen animalien erroldako ziurtagiria izan behar dute. Leku publikoetan muturrekoak jarrita eduki eta bi metro baino gutxiagoko katearekin kontrolatu behar dira. Animalia galdu edo lapurtuz gero, jabeak erroldako ardura-dunari jakinarazi behar dio.

AGURRAK ▶

Urtebetetzea, jaiotza, ezkontza, jaunartzea, urrezko etzeiak, agurrak... hemen argitaratzeko etorri HITZAren egoitzara; ekarri argazkia



URTE ASKOAN

Aimar Tolosa Figueredo (Tolosa).
Gaur urte bat. Aita, ama, arreba, aitona-amona
eta sendi guztien partetik muu handi bat.



URTE ASKOAN

Haizea.
Gaur 4 urte.
Aitaboa, amaboa eta ebekoa.



URTE ASKOAN

Zorionak Kipulas!!! Hainbeste hartu behar al dun? Mullon de mux!!!